

Muestra además, las estrategias del discurso hegemónico por mantener la supremacía y el orden social, incorporando las rupturas y reivindicaciones de los colectivos a su propio discurso, ampliando sus espacios de sentido, invitando a las distintas posiciones a la integración social. En lo relativo a los modelos ideales femeninos y masculinos, la autora logra explicar el proceso por el cual se introducen nuevas acepciones a los modelos de feminidad y masculinidad, influyendo directamente en el sistema de género, pero también, muestra las estrategias para mantener los principios ideológicos, traduciéndose en una continuidad del sistema de género tradicional. Con esto señala el lento y acucioso movimiento de la vida social, de permanencia e innovación, la dificultad de los cambios culturales, pero sobre todo, muestra la intencionalidad en la construcción de la realidad social.

Amaya Pávez Lizarraga



EUSKAL kritika, gaur = La crítica vasca, hoy = La critique basque aujourd'hui

Mari Jose Olaziregi, Aurelia Arkotxa, ed. lit. ; itultzailea : Fermín Arkotxa. – Non: Oihenart. Cuadernos de Lengua y Literatura / Eusko Ikaskuntza. – Donostia. – 19 zkia. (2002). – 312 or. ; 24 cm. – ISSN: 1137-4454. – ISBN: 84-8419-927-4

“Euskal kritika gaur”: iruzkin bat

1. Oihenart koadernoetan “Cuadernos de lengua y literatura”ko 19. zenbakian¹, 2000ko otsailaren 11an, Aurelia Arkotxa eta María José Olaziregiren zuzendaritzapean, Gasteizko Filologia-fakultatean egindako “Euskal kritikagintzari buruzko 1. jardunaldiak” direlakoetan irakurritako txostenak argitaratu dira multzo bitan banatuak, alde batetik “literaturaren irakaskuntza gurean”, eta “Genero eta literatur mota desberdinei buruzko unibertsitate-ikerketek” bestetik. Guztira 100 orrialde interesgarri, gaiarekin zelanbaiteko gertutasuna lortzeko bezala, hala ondo zehazteko arazo nagusiak non dauden.

2. Lehenengo atalean hiru dira aurkezturiko txostenak, Jesús María Lasagabasterren “Literatur kritika eta teoriaren irakaskuntza unibertsitatean”, Mari Jose Olaziregiren “Euskal kritikaren argiak eta itzalak” eta Patri Urkizuren “Euskal Literaturaren irakaskuntzaz hurbiltze kritikoa”.

Lasagabasterrek, oker ez baldin banago Euskal Herrian euskaraz literatur kritika egin duen lehen irakaslea izanik, alegia, berak baino lehen egindakoak –askotxo oso onak izan arren– iruzkin-mailakotzat jota (Lauaxeta, Aitzol, Andima Ibiñagabeitia, Koldo Mitxelena e.a.), diziplinaren barruko banaketa funtzional bat egiten du lehenen-

1. Noiz jarriko zaio izena euskaraz?

go eta behin, eta gaur egun ohikoak diren hiru alorrak desberdintzen: literatur kritika, literatur teoria eta literaturaren historia. Lehenengoa “testuen nolakotasun eta funtzionamendu formalez” arduratzen da. Teoriak ‘literaturtasuna’ dauka helburu. Literaturaren historia, azkenez, literatur testuak hurrenkera kronologikoan aztertzen saiatzen da.

Gero, euskal literaturaren berankortasunari oratuta (1545ean argitaratu zen lehen euskal liburua), eta orobat inongo segidarik izan ez zuen Oihenarten saioa aipaturik (1665an idatzi zuen antza bere “Art poétique basque”), gerra-aurrean egin ziren saio inpresionistak alde batera uzten duelarik, iruzkintzen ari garen bildumako txosten ia guztietan agertzen den topikora heltzen da, euskal literatur kritika, bene-benetan, euskal filologia sailak sortzean abiatzen delako topikora. Izan ere, euskal filologia-sailak sortuta alde batetik, eta euskal literatura eskola-geletan sartzearrekin batera bestetik, bai oinarrizko eskoletan, bai irakaskuntza ertainean, euskal literatura-sistema benetako baten oinarriak finkatzen hasten dira. Azken 20-25 urteko kontuak beraz.

Haren ustez, unibertsitatean egiten den lan hori hiru ezaugarri dauzka: zientifikotasuna, objektibotasuna eta koherentzia metodologikoa. Eta hori hala da kritikagintzak giza zientzietan bilatzen dituelako bere tresnak: linguistika eta semiotikan, soziologia eta psikoanalisian, komunikazio-teorian eta pragmatikan. Horregatik dio kritika irakasten dutenen helburua ezin daitekeela balorazioak egitea, ondokoa baizik:

“Testu baten barneko egituraren funtzionamendua azaltzea, edo zeinuen arteko loturak eta harremanak argitzea, edo testuaren sakoneko egituraren ager daitezkeen ‘mundu-ikuskerak’ edo ‘mito pertsonalak’ argitzea,... edo nik zer dakit zer arraio, irakurle arrunt eta normalak nabariko ez lituzkeena.”, (20. orr.).

Hurrengo, eta amaitzeko, euskal testuen literatur azterketaren beharrak aipatzen ditu hiru ikuspegitatik, linguistikotik, teorikotik eta metodologikotik, ‘unibertsitate-kritika’ –benetako kritika beraren ustez– eta ‘kritika publikoa’ edo ‘egunkari-kritika’ deritzonaren arteko hesiak ondo markaturik utzita, lehenengoa asko aurreratu den bitartean, bigarrena oso atzendua baitago, ez baitu ausardiarik “balorazio narratiboa edo poetikoa, hitz batez, estetikoa”(25. orr.) egiteko.

Oro har, beraz, oso lan interesgarria eta arazoak ondo argitzen dituenak, seguru asko, bizitza oso baten irakaskuntza-esperientziak ez duelako debaldean ahaleginik eskatzen.

3. Hurrengo lana, esan dugun bezala, Mari Jose Olaziregik sinatzen du, aurrekoa bezala oso ondo landua eta ideia askorekin. Hasi ere, kritikalariek duten sona txarrekin hasten da, baina bere buruari galdetu gabe zergatik gertatzen den hori. Ez litza-teke estrategia txarra, adibidez, Mari Josek berak bere lanetan begiratuta zera aztertzea, zenbat euskal idazleren izen agertzen diren lan horietan, hots, zenbat izen errepikatzen diren etengabe, eta zenbat behin ere agertzen ez diren, hori guzti hori jakina, berak ondo dioen bezala, 300 alekoa delarik, gutxi goiti beheiti, euskal idazleriaren erkidegoa. Hor agian, fama horren iturburuetako bat aurkituko duke, zeren onak edo txarrak kritikak, justuak edo injustuak, agerian baitago botere ikaragarriaren garraiatzaileak direla kritikalariek, eta idazle askok, onak edo txarrak izan, beraien bitima ikusten dituztela beren buruak. Kasu famatu bat baino ez aipatzearren, Günter Grass eta aleman munduko literatur kritikalaririk famatuena den Reich-Ranicki-ren arteko harremanak aipa daitezke, inolaz ere gozoak ez direnak.

Gero, euskal “literatur sistema” deskribatzen du eta zehazten “euskal sistema literarioaz mintzo garenean, euskal literatur testuen produkzioa, bitartekaritza, harrera

eta *birsorkuntza barneratzen dituen egituraz mintzo garela*” (29. orr.). Haren ustez, literaturaren autonomiaren garaia dugu, zeren joan den mendeko 80ko hamarkadan sorturiko egoera soziopolitiko-ekonomiko berriak idazleen eta beraien oinarrien hedapena ekarri baitzuen. Era berean, bere tesi doktoralesan egin zuen bezala Atxagaren obra bi aztertu zituenean, harrerari ere eskaintzen dio hainbat gogoeta, zera ondorioztatuz, jende gazteagoak ez duela hainbeste irakurtzen, eta sistemaren beste mailetan azken arteotan lorturikoak ez direla maila horretan, irakurlearen alorrean, parekatzen. Azkenez, eta Lasagabasterren bide beretik, kritikaren alorra ere deskribatzen du, eta haren modura ‘kritika publikoak’, unibertsitatekoak ez bezala, “ez duela egitura nahiz metodologia jakinik” ondorioztatzen. Bere txostena literaturaren ikerketaren egoeraren deskribaketa zehatzarekin amaitzen du, non hainbat mugarri aipatzen baitu, dela Lasagabaster, Orpustan zein Aulestiaren lanak, edo Kortazar, Etxaniz zein López Gasenirenak, idatzi eta aurkeztu diren tesiak zerrendatzeko gero. Bestelako monografiak ere aipatzen ditu, han-hemenka argitaratuak, eta azkenean, gauzak argi adierazteko, 10 puntuko dekalogo bat eskaintzen du, arras eskergarria dena, bat etorri zein ez, argi uzten duelako zeintzuk diren beraren ustez euskal kritikagintzaren egoeraren iturriak, Mari Jose Olaziregin lanetan beti bezala, argi eta zorrotz, eta horrexegatik bilduma honetan, zalantzarik gabe, agertzen den lanik onetariko bat.

4. Hurrengo lana Patri Urkizuk idatzia da. Horretan, XVII. gizaldian hasita, euskal literaturaren irakaskuntzaren berri ematen digu, eta Urkizuk sarri askotan egiten ohi duenez hainbat berri interesgarri ezagutarazten, dela XVII. mendean iparraldean egingako saio huts eginak, dela Xahoren proposamendu ausartak, edo Pierre Lhande jesuita zuberotarraren begitazioak. Laburtu beharrean, esan daiteke Urkizuren txostena geure burua kokatzeko beharrezkoa den testuinguru historikoaren deskribatzaile zehatza dugula.

5. Bigarren zatian, generoak aipatzen dira banan-banan. Jon Casenave-k, Jean Etxepare medikuari buruzko tesiaren egileak, saiakera ukitzen du. Xabier Etxanizek, bere tesia haur eta gazte-literaturaz idatzitakoak, gai horixe bera jorratzen du. Jon Kortazar, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle katedraduna, euskal literatura-sistemaz ariren da eta euskal lirikaz egindako tesiekin arduratzen. Kontagintzaz Ana Toledok idazten du, berak bere doktorego-tesia Txomin Agirreren eleberrigintzaz idatzi eta gero; eta Patri Urkizuk, azkenean, euskal antzertiaz idatzitako hainbat lanen berri ematen digu, iruzkin xumeekin hornituko bibliografia batean.

Jon Casenave lehendabizikoz ‘saiakera’ izeneko generoa mugatzen saiatzen da eta ohikoak diren oztopoekin egiten du topo, alegia, eleberria, olerkaritza eta antzertia ez den guztia saiakeratzat jotzeko joerarekin. Haren ustez, hiru ezaugarri aipa daitezke generoa mugatzeko: lehenengoz saiakerak daukan alde esperimentalak; bigarrenkoz saiakerak idazlea eta irakurlearen artean sorrarazten duen harreman berezia, haren ustez *“kontratu bat bezala proposatzen baitio irakurleari, erran nahi baita, hunkituko duen gai horri buruz jendeen artean badabilazan ikuspegi arruntak jorratuko dituela edo bederen harrotuko pixka bat”* eta horretan idazleak duen *“irakurlea bere alde biltzeko xedea”* (64. orr.); eta azkenekoz eta hirugarrenez literaturtasuna, alegia, *“helburu estetikoak edo literaturaren egiteko gogoak”* (65. orr.). Txostena ezaugarri horiek Etxepareren “Buruxkak” liburuan arakatuta amaitzen du, irakurlearengan halako sentsazio on bat utzita, begirada sakon batek bakarrik utz dezakeen bezalako bat.

Xabier Etxanizek, labur-labur heltzen dio bere gaiari, eta horretarako bere ustez kritikak bete behar duen funtzioa argitzen du, haren ustez *“arestian aipatu bezala, kritikak aztertu eta zabaldu egin behar baitu produkzioa”* (70. orr.). Bestalde, kritiken tipologia bat proposatzen du, Euskal Herrian egiten den kritika jorratu ahal izateko,

alegia, 'zerrendak', berak 'erreseina' eta 'erreseina-kritika' deritzonak (alegia, 'iruzkin' eta 'iruzkin kritikoak'), eta 'kritika akademikoa'.

Hurrengo lana Jon Kortazarrena da, gorago esan bezala, gai bi darabiltzana, euskal literatura-sistemaren bilakaera eta euskal lirikaz egindako kritikak, berak hain zuzen bere ikerketan gehien landu duen alorra, "Euskal poesia 80ko hamarkadan" saio mardulean esate baterako.

Bilduma ixten duen Urkizuren bibliografia aparte utzita, orduan, Ana Toledorena da azken lana, alegia, "kontagintzari buruzko unibertsitate-ikerketak". Txosten horretan orain arteko uztaren berri ematen du Deustuko Unibertsitateko irakaslea den egileak, h.d., kontaketa konkretuei buruz egindako ikerketen emaitzen berri. Horretarako, lan horietan erabili izan diren kritikamoldeak aztertzen ditu.

Lehendabizikoz, errusiar formalismoaren gairak jotzen den eta sustraiak europar estrukturalismoan dauzkan kritika semiologikoa. Egileak, hain zuzen ere, bere "*Domingo Agirreren eleberrigintza eta euskal fikziozko prosaren taxuketa*" zeritzon tesia idazteko erabili zuen kritika-joera, alegia, literaturaren ikuspegi substantzialista duen kritika "*literatur mintzairaren izaera berezitik -bere balioaniztasun semantikoa-hurbiltzen delako literatur testura, errusiar formalismoak edo estrukturalismoak egін zuen bezala, mintzaira desbideratutzat edo funtzio poetikoa nagusi duen mintzairatzat jo zutenean*" (89. orr.). Berak bere tesia aurkeztu zuen garai beretsuan Sebastián García Trujillo-k ikuspegi eklektikoago batetik egindako tesia ere aipatzen du, "*La novela costumbrista de Domingo de Aguirre*", helburu bi edo zeuzkana, alde batetik Agirren baldintzapen soziokultural eta pertsonalak aztertzea, eta beraren ohitura-eleberrien deskribaketa orobiltzailea lortzea bestetik.

Hurrengo, Mari Jose Olaziregik harrera-teoriaz baliaturik idatzitako "*Literatura eta irakurlea. Testu-estrategiatik soziologiara Bernardo Atxagaren unibertso literarioan*" izenburua zuen tesia aipatzen du, irakurlea, bai inplizitua eta bai esplizitua, literaturlanaren osaketan duten funtzioa aztertzen saiatzen dena. Olaziregik "nola dago egina testua?" galderari "zein da baliabide tekniko horien helburua?" itauna kontrajarriko dio, nahiz eta erantzuna emateko, beste kritikabideetan erabili izan diren deskribaketa-kategoriak erabiltzeko inongo eragozpenik ez duen.

Azkenez, Hur Apalategiren doktorego-tesia aipatzen du Toledok, "*L'Évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga, du champ littéraire basque au champ universel. Socioanalyse du pathos atxaguien*", abiaburu bezala "*idazlanaren eta berau sortzen deneko testuinguru soziologikoaren artean harremana dagoelako*" hipotesia (91-92. ork.) erabiltzen duena.

Bere txostena amaitzeko, euskal eleberrigintzari buruz egін diren proposamendu historikoak aipatzen ditu, dela Sarasolaren "*Txillardegi eta Saizarbitoriaren nobelagintza*" izeneko saioa, dela Lasagabasterren 1981ko "*Euskal-nobelaren gizarte-kondairaren oinharriak*" deritzon artikulua, edo dela Gotzon Garateren "*Euskal eleberraren kondaira*" izena duen saiakera, hots, euskal eleberriaren historia laburrean egindako begirada benetan orokor bat ematen digu.

Laburbilduta, interesez beteriko bilduma, ikuspegi orokorrak argi uzten dituen, eta era berean maila zehatzagoetara jotzeko beldurrik ez duena.

5. Iruzkin hau amaitzeko, baina, osterantzeko hiru arazotxo aipatu gurako nituzke, nire ustez bilduma honen irakurketa behar baino astunago eta malkarrago bihurtzen dutenak.

Alde batetik, bilduma hiru hizkuntzetan batera argitaratzeko gastu eta ekinbide absurdua. Jokabide horrek ez dauka nire ustez inongo zentzurik, bilduma honen irakurleak ez baitaude euskaraz irakurtzen ez dakitenen artean. Gaztelaniaz eta frantsesez aparteko argitalpenetan ateratzeak funtzio bat izan dezake, baina modu honetan, denak batera, ez diot nik inongo onurarik ikusten.

Bigarren, Eusko Ikaskuntzak bere “koadernoak” argitaratzeko darabilen papera da aipatzekoa, nire ustez guztiz txarra eta desegokia baita argitalpen zientifikoetarako, bai seriotasuna lapurtzen diolako argitalpenari (katalogoetako papera ematen du), bai eta erabiltzeko eta irakurtzeko (argia islatzen duen moduagatik) oso deserosoa delako ere.

Azkenez, maketazioaz hitz egin gurako nuke, hasierako aurkibideena batez ere: ez dauka ez hankarik, ez buztanik, eta are gutxiago irakurgarritasunik. Ezinezkoa da halako aurkibide hiru-hizkuntzadun batean, eta darabiltzan koloreekin, ezer ere erraztasun eta gozotasunez aurkitzea. Kasu honetan ezinezkoa den arren (testu guztiak hiru hizkuntzetan argitaratu direlako), nire ustez aurkibide bakarra jarri beharko litzateke, artikulua idatzi diren hizkuntzan bakarrik iragarrita.

Konponduko al ditu Eusko Ikaskuntzak akats hauek!

Andolin Eguzkitza (†)



EUSKAL Unibertsitatea 2021: egiten ari garen euskarazko unibertsitatea

Bilbo: EIRE eta UEU, 2002. – 491 or. ; 24 cm. – ISBN: 84-8438-028-9

2001eko udazkenean, ehun eta hogeitau unibertsitate-irakaslek kongresua egin zuten Bilbon, **euskal unibertsitatea** gaitzat harturik. Kongresukideen artean, Euskal Herriko unibertsitate ofizial guztietako irakasleak egon ziren, batzuk erakundearen ize-nean, eta gehienak modu indibidualean. Horiekin batera, unibertsitate-bokazio duten beste zenbait erakunderen kideak ere bertan izan ziren. Euskal Herriaz kanpoko jendea ere gonbidatu zuten antolatzaileek kongresura.

Txostenen aurkezpenak, eztabaidak eta ondorio-bilketa nagusia Bilbon burutu ziren, Bizkaiko Foru Aldundiaren hitzaldi-areto batean. Kongresua egin ondoren, antolatzaileek eurek (*EIREk*) eta *Udako Euskal Unibertsitateak* elkarlanean egindako ekoizpen-lanaren bidez ikusi du kalea *Euskal Unibertsitatea 2021* liburuak, Bilboko bilkuren txostenak bildu dira horra.